

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Lan-orientazioko zerbitzuak ematen dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeetarako laguntzak deitu dira

Nafar Lansareak 300.000 euro erabiliko du lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten langabeei arreta emateko

Asteartea, 2016.eko apirilak 19

[Laneratzeko orientazio eta jarraipeneko](#) zerbitzuetan esperientzia duten irabazi-asmorik gabeko erakundeek laguntzak eska ditzakete jadanik; Nafar Lansareak finantzatzen ditu mota horretako jarduerak, laneratze zaila duten taldeetarako direnak bereziki.

300.000 euroko deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean [argitaratu](#) da astelehen honetan, eta bertan zehazten da nolakoak izan behar duten lan-orientazioko programak, autoenplegu nahiz ekintzailtzarako orientaziokoak eta enplegu-eskaintzak erakartzea.

Laguntzekin enplegua nahi duten langabeen laneratzea erraztu nahi da, lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituztenak. Gazteen berme-sisteman inskribatutako gazteak lehenetsiko dira, iraupen luzeko langabeak eta honako profil hauetakoren bat dutenak: 45 urtetik gorakoak, emakumeak, tituludun pertsonak, desgaitasuna dutenak edo gizarte-bazterkerian izateko arriskua dutenak.

Erakundeek, berriz, honako hauei buruzko ekintzak egiteko konpromisoa hartzen dute: informazioa, lanbide-orientazioa, motibazioa, aholkularitza, lanbide-profilaren diagnostikoa eta erabakia eta, laburbilduz, pertsona onuradunen laneratzea babesteko ekintzak. Deialdiak jasotzen du enplegu-eskaintzaileen banakako diagnostikoa (egungo gaitasunak eta hobetzeko beharrak) "ibilbide pertsonalizatu" bati lotzeko beharra; konpromiso horrek erabiltzaileek jarraitu beharreko etapak eta mugarriak jasotzen ditu.

Gainera, erakunde onuradunek, enplegu-eskaintzak bereganatzeko, prospekzio-zerbitzuak egin beharko dituzte enpresetan, ezkutuan dauden enplegu-eskaintzak azalarazteko helburuarekin, eta [Nafarroako Enplegu Ataria](#)ren bidez kudeatzeko.